CIN - 160

# LURGABE





OKLAHOMA
ITSAS MUTILA
IBAIAK URA BEZELA
ARRANTZALE

## OKLAHOMA

Oklahoma-n ba da bakero bat
jendeak Tom deitzen dutena,
ta gehiegi edaten dunean
harro harro beti jartzen da.

Bere lagun artetik hobe da lokarritik,
zaldi eta arduakin beti nagusi,
bere bihotza ere saldutzen du emakurneei
beti hauekin alai eta pozez.

Baina hainbeste harrokeri
bukatzen du bere etxean,
egunero atetik sartzean
andreak ixil hartzen dunean.

## ITSAS MUTILA

Mutil begira, begira ama,
su baztarrean otoiz ta negarrez.
Zu hain urruti itsasoan;
laister itzuli su ondora.

Gogoan daukat eguna:
hotzez ta ikaratuta
sartu nintzan basora.

Zer bildurra!,
inori esan gabe
joan nintzan itsasora

Itsasoko herri guztietan,
beti amaren eskutitzak,
bere maitasun guztia esaten.

Holako hitzak,
amak bakarrik idazten!

## IBAIAK URA BEZELA

Ibaiak ura bezela,
egunsentiak argia dakar.
Alaitu gazte maiteak,
etorkizuna gurekin dator.
Bizi geran mundu hau,
guk ez nahil,
gizona gizonari
bihurtzen zaiolarik otso.
Ibaiak ura bezela,
egunsentiak argia dakar.
Alaitu gazte maiteak,
etorkizuna gurekin dator.
Gure bidean ariz,
egial
anaitasunarekin
bihar hobe bat loratzeko.
Ibaiak ura bezela,
egunsentiak argia dakar.
Bai, bai, bai, argiarekin
espero dugun mundu librea.

## ARRANTZALE

Arrantzale gazte bat zan,
langile ta jatorra.
Gaur harek bi lagun ditu:
itsaso ta kitarra.
Neska bat maite zun,
benetan maite ere.
Zoritxarrek kendu zion,
triste da ha gabe.
Juanita zun izena
maite izan zuana,
ta maitearen izena
darama gaur kitarrak.
Juanita-ren izenak
negarmina damaio.
Haren bila dabil baina
minak ez du balio.
Itsasoko bakarrean
arrantzale jatorra.
Bi lagun bakarrik ditu:
itsaso ta kitarra.

LURGABE hirukotea sortu zan 1968'garren urtearen erdiruntz eta lehenengoz Elgoibar-en abestu eban.
Talde hau osotuten dabe hiru neska gazte trebeak: Regina Arrieta, Maria Luisa Zubiaurre ta Begoña Badiola. Euren irakasle ta zuzendaria da Angela Zabaleta.

Abestu daben toki guztietan, beti atseginez entzunak izan dira ta disko honetan eskeintzen deutsue euren abesti txalotuenak, Jose Zubiaurre kitarrakin laguntzaile dala.

LURGABE-ren zuzenbidea: Angela Zabaleta - Calle Uno, núm. 5-2.° ELGOIBAR.

**45 r. p. m.**

**CIN - 160**

Egillea: CINSA - Av. Ejército, 18, 3.° - BILBAO - 14
Depósito Legal: BI. - 1.658 - 1969 - Imp. AMADO - Bilbao

CIN - 160

# LURGABE





OKLAHOMA
ITSAS MUTILA
IBAIAK URA BEZELA
ARRANTZALE